



Akelarre. Nestor Barrenetxea



## EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortazun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarriz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN




**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa

# bertan

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

**Jon Etxebarri:**  
«Mundu honetan lan egiteko asko borrokatu behar da»



1998ko urria. 7. zenbakia. Lege gordailua: BI-85-98. 125 pezeta.

Tas Tas irratia ☞ Zea Mays ☞ Kaixo konpartsa ☞ eta askoz gehiago...

# HHE M EENN GAG GOZZ ATZERA ATZERA

Berandu, baina...

Urrian gaude, eta abuztutik gure berri barik, eta guztion berriak irakurri barik. Galduta gaudela pentsatu du baten batek, ez horixe! Hemen gaude berrito, indarberiturik eta aurrera egiteko gogo handiagoarekin.

Berandu ibili bagara, ez da alferkeria edo festetako ajeagatik, ez, lokal berria dugulako baino. Santutxuko Familia Elkarteari esker erredakziorako lokala atondu dugu behean duzuen helbide berri honetan.

**Iturriaga 55, 1. ezk. 48004 Bilbo**  
**Telefonoa: 94 473 54 48**  
**E-posta: berton@mail.com**

Santutxuko Euskal Txokoa

Udan eta neguan  
goizean, arrastian eta gauean  
euskarari bai ta bai ta bai...

Eta zeu..?

Hemen gagoz:

Iturriaga 55, 1. Ezk  
48004 Bilbo  
94 4735448  
asapala@eusnet.org



**OTXARKOAGAKO  
EUSKAL TXOKOA**

**Gure auzoan ekinean**

*Ikastaroak, irteerak,  
kultur ekitaldiak...eta  
beste hainbat gauza  
antolatzen ditugu*

**Euskaraz bizi!**

Telefonoa: 4121877

- 4 ⇨ **BUZOIA**  
IDATZI DIGUTENAK
- 5 ⇨ **BERTORATUAK**  
"VILLA VELAIKO AMUÑA"
- 6 ⇨ **Beitu!**  
GAZI-GOZOAK
- 7 ⇨ **Begia**
- 8 ⇨ **MAHATSORRIA**  
BEGOÑAKO BASERRIAK
- 10 ⇨ **BATU GURERA!**  
KAIXO KONPARTSA

- 11 ⇨ **BERBETAN**  
UDAKO LIGEEKIN ORAIN  
UDAZKENEAN ZER?
- 12 ⇨ **BERON DUGU!**  
TAS TAS IRRATIA
- 14 ⇨ **BAKARKA**  
JON ETXEBARRI
- 17 ⇨ **MAHATSERRIAK**
- 22 ⇨ **BOTA BA!**  
HAR EZAZU OLATUA!

- 24 ⇨ **BIDEAK**  
KULTURBERRIAK
- 27 ⇨ **BEGI ZORROTZA**  
Komikia
- 28 ⇨ **BEJONDEIZULA!**  
LEHIAKETA MUNDIALA
- 30 ⇨ **BURUHAUSTEAK**  
DENBORAPASAK
- 31 ⇨ **BERTSOTAN**

berton

**ARGITARATZAILEA:**

Batana Batu Kultur Elkartea

**ERREDAKZIOA:**

Iturriaga 55, 1. ezkerre.  
48004 Bilbo  
Telefonoa: 94 473 54 48  
E-posta: berton@mail.com

**ZUZENDARIA:**

Aitziber Laskibar

**ERREDAKZIOA:**

Unai Cuevas, Arrate Diez, Urtzi  
Urrutikoetxea, Zuriñe Uriarte, Jaione  
Letamendia, Itxaso Perez.

**ARGAZKIAK:**

Iñigo Azkona, Xabi Herrera.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Joseba Barrenetxea, Benito Fiz

**KOLABORATZAILEAK:**

Joseba Zelaia, Alberto Ugarte, Iñaki  
Gaminde, Edurne Basozabal, Idoia Irastorza,  
Igor Martin de Vidales, Santutxuko Bertso  
Eskola, Igor Zorrozueta, Angel Zelaieta.

**ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA :**

Koldo Urrutikoetxea.

**LEGE GORDAILUA:**

BI-85-98

**ALE KOPURUA:**

1000

**FOTOMEKANIKA:**

Argia S.L.

**Inprenta:**

Antza inprimategia.

## Aupa Mahatsorriok!

Hotzitate nao, udie akabau de ta negue dator atoan. Ganera, kriston txaparradak bota dittu egunokaz. Ta pentsau dot: honeik, bertonekoak, nun dabiltez ba? Itto, edo konjelau ein direz, ala? Ze, uden esan eurien orain setienbrien bueltan etorko zirela, baie, niri etzera ez jata ezebere ailegau, ta suskriziñoa pagau einyot, gero! Ta esan eurien hilien behin atarako euriela ta etzera bota, ta hile bi pasau ta ezeberrez.

Ta geittu ein dotsiet aberzeostidxepasetandan ta esan dostie han ez dagozala, lokal barridxe deukiela ta han dabiltezela dana atonduten eta preparaten, ta horregaittik dabiltezela berandu. Ñoooooo! Ederra kontue, gero! Hilien mile pezeta pagau ta emoten dotzue rebistie kolorien ta gauzek kontetan ta ganera ondiñokarren deukie dirue etzie erosteko? Amen zeozer dao arrarao.

Ez ba! Resultake etzie Santutxuko Famili Elkartekoak itxi dotziela bertan redakziñoa ipintteko ze holango gauzek infrastrukturie eukin bier daurie ona, ta olan rebistie ogeto ta politao atarako daurie.

Ta orduen pentsau dot. "Joder, ta ondiñokarren dao jentie rebistie existiten danik bere ez dakidxena? Ta euskaldunek direz, ta leiduten bere badakidxe ta ez daurie leiduten. Hau de hau ixetekoa!

Hori neuk esango baneu sikiera! Ze, niri ez badostie eskribiduten berba eitten doten modure kostau eitten jata, baie berton hartu eta, joño... entendidu eitten dot, ta enterau eitten naz. Asike, aber enterauok bere enteraten bazarie.

Hala!

Firmaute:  
Matzurion



# idatzi digute...

## Lizarrako akordioarekin bat

Santutxuko Malatxak bat egiten du honako dokumentuarekin:

**Lizarrako akordioaren** sinadura, eta Euskal Herriko gehiengo politiko, sindikal eta sozialak Euskal Herria eta Frantziar zein Espainiar estatuen arteko gatazka gainditzeko hartutako konpromezuak, eta Euskadi Ta Askatasunak publiko eginiko komunikatuaren aurrean, **MALATXA**, Euskal Herriaren desmilitarizazioa helburu duen kolektiboak publiko egin nahi du hurrengo dokumentua, bere batzar nazionalan adostu ostean 1998ko Irailaren 19an.

**BAT** : Interes handiz hartzen dugu Lizarrako Akordioaren plazaratzea ondorio izan duen Euskal Herriko sektore ezberdinek sortutako ekimena eta txalotzen dugu bide honen jorratzean alderdi eta talde horietako bakoitzak eginiko esfortzua. Honekin batera, geure egiten dugu Lizarrako Akordioaren edukinak bere osotasunean eta gure atxekimendu publikoa adierazten dugu.

**BI** : Positibotzat jotzen dugu Euskadi Ta Askatasunak hartutako jarrera, aurrera egitea ahalbidetuko duten epe luzerako apostuak hain beharrezkoak diren une honetan. Halaber, bere aldetiko su-eten mugagabearen aldarrikatzeak, herri honen askatasun nahiarentzat atek irekiko dizkioten eszenatoki berrietara igarotzeko borondate zintzoa adierazten du.

**HIRU** : Bat gatoz, Euskal Herria, Espainiar zein Frantziar estatuekiko duen enfrontamendua, izaera eta jatorri politikoa duen gatazka historiko bat bezala identifikatzearekin. Kontsiderazio hau, gatazkaren sakoneko arrazoen konpontzeari ekiteko ezinbesteko oinarritzko premisa da, konponbide hauek politikoak izan beharko direlarik noski.

**LAU** : Lizarrako Akordioak halaber, gatazka politiko baten existentzia ondorio duten oinarritzko faktoreak identifikatzen ditu. Herri honek

jasaten duen partizioa, bi estatu eta hiru administrazio ezberdinetan banatuz, unibertsalki aitortua den autodeterminazio eskubidearen ukapena eta euskal gizarteak pairatzen duen defizit demokratiko sakona gainditu beharreko funtsezko faktoreak dira.


**BOST** : Lurralde banaketa, Euskal Herriak jasaten duen defizit demokratikoa zein gure etorkizunaz erabakitzeko eskubidearen ukapenak, indarkeriaren bitartez inposatzen zaizkio euskal gizarteari. Euskal Herriak pairatzen duen atzerritar okupazio militarrek indarraren bitarteko inposaketa horren bermatzaile nagusia da, hala nola, herri honetan estatuaren indarkeriak hartzen dituen forma ezberdinen bizkar hezurra.

**SEI** : Okupazio militar egoera honetatik.; Euskal Herriak bizi duen militarizazio egoera bortitza dator, Europako polizi dentsitaterik altuena duen herria, munduko beste edozein herri baino gorputz militar eta polizial gehiago jasatera behartzen zaiolarik, bere mendi eta haranak gorputz hauen menpe dituela eta bere kale zein errepideak uniformatuen presentziaz bortizki kolpatuak dituen.

**ZAZPI** : Funtsean atzerritar okupazio ntilarrak eragindako militarizazio egoera hau, gatazka sortzen duten faktoreak gainditzeko bidean oztopo eta eragozpen argia da. Era berean, herri honen desmilitarizazioaren nahiarentzat sekulako traba suposatzen du.

**ZORTZI**: Irlandako esperientziak gatazken gainditzeko desmilitarizazioak duen garrantzi politikoa frogatzen du. Atzerritar okupazio indarren erretiratze mailakatu Euskal Herriaren hitza bermatzeko ezinbesteko urratsa izango da, eta halaber, herri eredu desmilitarizatu baten eraikuntzarako bidean funtsezko gako izango da.

**BEDERATZI**: Kezkagarritzat jotzen ditugu Estatu botereak hartzen ari dituen posizioak, autobazterketa eta inobilismoaren aldeko apostu



bat eginez eta Euskal Herriko demokrazia mailan sakontzeko edozein bide ukatuz. Posizio hauetatik etor daitezkeen jartzen ari diren oinarriak boikoteatzeko mugimendu posibleak, bereziki kezkagarriak iruditzen zaizkigu.

**HAMAR** : Aurreko guztia baieztatzen dugu, egiten ari diren mugimenduekiko begirune eta errespetu osoz. Era berean, euskal gizartearen ezberdinen borondate ona eta ardurari deitu nahi diogu, etorkizunean izango ditugun erroka berriei aurre egiteko gai izango garelakoan.

Era berean, dokumentu honen onartze eta publiko egitearekin batera, **MALATXA**, Euskal Herriaren desmilitarizazioa helburu duen kolektiboak, konpromezu hauek hartzen ditu :

Hemen azaldutako edukinak zabaldu eta gizarteratu, eta Euskal Herriaren desmilitarizazioarekin hartutako konpromezua berritu.

Ondorio hauek, Lizarrako akordioaren sinatzaileei bideratu, haien eskuetan jarriz, kontsideratzen duten edozer tarako.

Euskal Herriaren desmilitarizazioaren alde borrokatzen duen edonorekin, eta euskal antimilitarismoaren espresio ezberdinekin kontaktuak egin eta komunikazio bideak eraiki, hemen jasotako ondorioak kontrastatu eta konpartitzeko asmoarekin.

Santutxuko MALATXA

bertin

# kolaborazioak

## Villa Velaioako Amuña

(Santutxuko Erriotarrei eskainia)


Angel Zelaieta

Antza denez, Euskal Herri zaharra gaurkoa baino zabalagoa zen, euskal hiztun eta lurzail handiagoak zeuzkan. Erdi Aroan, 1264. urte zaha-rren inguruan, bizi izan zen Donemiliako Kukuilagan (San Millán de la Cogolla) bere buruaz *Yo, maestro Gonçalvo de Verçeo* zioena. Ez du inork baieztatzen Kukuilaga eta beronengandik goratxoago dagoen Villa Velaion euskara egiten zenik, baina bai uste da Verçeo hau bilinguea zela, eta Berceo deritzon herritik hurbil dagoen Ojacastron euskara bai egiten zela.

Besteak beste, *Vida de Sancta Oria, virgen* idatzi zuen, guzti-guztia tetraastrofo monorrismo alejandrinoetan, hots, Jon Juaristik liokeen moduan, zortziko txikietan.

Oria birjina **Villa Velayon** jaio zen: "Fue de Villa Velayo, segunt lo que leemos". (Ez da agertu ere egiten herrixkatxo gaurko mapetan, baina Kukuilagatik Urbion mendi kateranzko bidean arkituko duzu.)

**Oria** beilegia da: "Nombre avia de oro, **Oria** era llamada". Badakigu nor zituen gurasoak: **Amuña** ama eta **Munio** aita: "Amuña fue su madre, escrito lo tenemos, / Gracia fue su padre, / en letra lo avemos. / Muño era su nombre, omne fue bien letrado." Badirudi batak amona esan nahi



duela, eta aitarena ere oso ezagun da guere artean: Muñoa, Muñozguren..., Muñeka (Enkarterrietako mendixka) ahantzi gabe.

Oria monja sartu zen. Badakigu komentuaeren ugazabaren izena: "**Voxmea** avia nombre la que la siella guardaba", hizketa mehea, emea... zuela, alegia.

Behin, komentuko hormetako irudiez azalpenak ematen ari zitzaizkion, eta diotse bertoko martirienez: "Dexáronse matar a golpes de **azkonaz**". (Latinetik omen dator hitza, baina euskarak baino ez du gorde.)

Gau batez, Oria, unatua, ohean etzan zenekoan, badio poetak: "Non era la camena de **molisa** ablentada", esan nahi duela ez dela ohe-moltsoa edo koltxoea ez bigun ez suabe.

Oriari ama birjina agertu zitzaion. "Mas hermosa de mucho que non es la aurora" gonbaraketarekin erretiratzen du Verçeoak. Verçeo honek, euskal bertsolari trebatuen moduan dihardu. Azken alejandrino honen 2. he-mistikioan, adibidez, ez du sinalefarik egiten, Iparagirrek "Gernikako Arbola da bedeinkatua" delakoan legetxe.

Euskaldun oso-oso ote genuen?

bertin

KOMERTZIALA BEHAR DUGU

Interesatzen bazaizu jarri kontaktuan gurekin, telefono honetan:

94 473 54 48

**DAYTON**  
Reagge-festa  
taberna

Santutxuko poteo gunean

**ANGEL**

HARATEGIA - URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

U N O I A



ERTORRATUAK





# MAHATS ORRIA

Mahatserria zana, dana eta izango dana

## Begoña ta euskerea

⇨ E.Basozabal, I.Gaminde, I.Irastorza, I.Martin de Vidales eta K. Urrutikoetxea

Aupa lagunok! Hamen gagoz barriro be zuokaz. Oraingo honetan Begoñako baserrien gainean berba egiteko gatoz zuokana. Zuetariko askok ez dau jakingo asko dirala gure auzune\* honetan dagozan baserriak eta are gehiago egon direanak. Honetako gehienak huriak jan dituenak baina ahaztu behar ez direanak. Horregaitik gai hau erabiltzeko tartekaturik agertuko direan hiru artikulu dedikatzea beharrezko begitandu\* jaku. Honako honetan Begoñan garai baten egoneko baserriak aipatuko doguz.

Ezin ahaztu geinke pertsona batzuren laguntzinoa\* , besteak beste, K.-Toño Frade, Txelu Etxebarria Goiri, Iñaki Epelde, Esperanza Larrazabal eta José san Martín . Honeei esker eroan dogu behar hau aurrera, beraz, gure eskerrik beroenak danari.

## Begoñan egoneko baserriak

### LARRAZABAL BASERRIA

Larrazabal baserrian, Urrutia familia bizi zan. Bertan Sabino Aranak bere lehenengo mitin ospetsua bota eban. Etxebarria beharlekua\* aurrez aurre egon zan kokatuta, Uribarri ondoan, Traukon.

### MAZO BASERRIA

Mazo baserrian Larrazabal familia bizi izan zan. Txakolina egiten eben etxerako. Euskera galdu zan gerra denboran. Gaur egun «Santa Monica» komentua dagoan tokian egoan.



Larrazabal baserria

Ezkerraldean, Larrazabal ahiztak baserriaren aurrealdean dantzatzen ikusteko aukera dogu.

« ....goiseko bostetan alztaten ginean astuas plasara joateko.

Domeketan Bilboko jentea Begoñara etorten san egun pasa...»-dino Esperantza Larrazabalek.

### MONTAÑO BASERRIA


Gerrikabeitia familia bizi zan. Txorien lehiaketa ospetsuak egiten zirean bertan. Uribarri aldetik egoan, Matiko gainean.

### GARAIZAR BASERRIA

Etxe zuri baserriaren aurrean egoan. Benigno Etxebarria bizi izan zan bertan. Baserri hau zala eta auzuneak\* Garaizar izena hartu dau.



Mazo baserria



Llorente baserria

### BIRJINETXE BASERRIA

Begoñazpi ikastola eta Birjinetxe eskolaren tartean egoan. Mariñe eta Martzela bizi izan zirean bertan. Guda karlistan, Begoñako Amabirjina bertan euki eben gordeta. Hau dala eta baserriak Birjinetxe izena hartu eban.

### ERREKAKO BASERRIA

Begoñazpi ondoan dagoan monjen etxe ondoan egoan. Mendieta bizi izan zan bertan. Erreka bat egoan han eta hortik bere izena.

### LA CORRALA BASERRIA

Garaizarreko txokoa dagoan tokian egoan. Errekalde familia bizi izan zan bertan. Aurrez-aurre harri haundi bat egoan: «agurlekua». Bertan, Ama Birjinari agurra egiten eutsen. Baserri aurrean zelai bat egoan eta bertan Bermeotik arraina saltzen etorren jentek mandoak izten ebazan.

### LLORENTE BASERRIA

Etxebarriako parke ondoan egoan, gaur egun autobus geltokia dagoan tokian.

### MADARIAGA GOIKOA

Artetxe baserriaren behean egoan. Timotea bizi izan zan bertan.

### LARRAKOETXE

Otxarkoagako eliza inguruan egoan. Gorostiaga familia bizi izan zan bertan.

### LANGARA BASERRIA

Otxarkoagan, «correos» dagoan lekuan egoan.

### TXURDINAGA


Egiron bizi izan zan bertan.

### LARRATUNDU

Larrakotxatik Arbolantzarako bidean egoan. Goikoetxea familia bizi izan zan bertan.

### LARRATUNDU GOIKOA

Larratundu baserriaren ondoan egoan. Goikoetxea bizi izan zan bertan.



Montaño baserria

\*Auzunea: «barrio» adierazteko Bizkaian orohar erabiltzen dan berbea.

\*Begitandu: iruditu

\*Laguntzinoa: laguntasuna.

\*Beharlekua: behar egiteko lekua, behartropea.

# Kaixo konpartsa

## (Zurbaranbarri)

Kaixo Konpartsa 1978 urtean izan zuen sorrera, hasiera batean ez bazen "konpartsa" gaur egun ulertzen dugun bezala. Hau dena azaltzeko lehenengoz kokatu behar gara urte horietan eta Zurbaranbarri auzoan.

### ☞ Itxaso Perez

70.hamarkada horretan Zurbaranbarrin - beste leku askotan bezala - elkarte ugari sortu zen: auzokideen elkarteak, aisialdi taldea, ... jende zahar eta gazte. Auzo mugimendu horrek bultzatuta, Kaixo irten zen elkarte edo talde horiek biltzetik. Izan ere, hasiera bateko izena Kaixo Elkarte Kulturala zen, eta egiten zituen ekimen artean euskal dantzak, euskara klaseak, eskulanak larruaz eta metalez, txistu klaseak, Olentzaro eta Agate Deuna egunetan abestu... eta auzoko jaietan parte hartu, baita Aste Nagusian ere.

Baina denbora ez da alferrik igarotzen eta geroxeago batzuek utzi, beste batzuk beste gauzetan aritu, heldu, haurrak izan, ... eta hasierako 90 partaide ingurutik kopurua jaitsi zen nahikotxo, urte batzuk pasa eta jende berria sartu den arte. Dena den, auzoko konpartsa izaten jarritzen du. Lehenengo "egoitza" Lezamako Trenbide Zaharra kaleko lonja baten zegoen. Bertan, hautsaz gain turutat egindako musika tresnak, mozorroak, eta hainbat gauza pilatzen ziren. Baina leku aldaketa urte gutxira gertatu zen, eta gaur egun auzoko plazan dagoen lokalean finkatu zen. Leku berrian baina aurretik egiten ziren gauza berdinak eginez: tailerrak,



euskal dantza ikastaroak, ... eta gauza berriak gehituz ere: ludoteka, pelikulak egun batzuetan... Txirindulari elkarte bat ere eratu zen, orain urte gutxi arte aritu dena.

kalimotxoaren arrastroa oso nabaria da kamiseta zurian...).

Baina ezin dugu amaitu sukaldaritza arloari aipamenik egin barik, Kaixo Konpartsak isladarik izan badu hor



Bilboko Aste Nagusian parte hartu zuen lehenengo aldia 1981. Urtean izan zela uste dute konpartsakide batzuek, baina datei dagokienez ez dute oso ziur esaten. Dena den gu fidatu egiten gara. Urte bitan txosna Arriagaren atzealdean egon zen, Txomin Barulloren ondoan, eta 83an musika kioskoaren parean, baina kaian. Eta jakina, urte horretan ibaia jaitsi zen jaitsi zen bezala, eta egun batetik bestera txosna barik gertu zen Kaixo.

Txosna barik baina gogo barik ez, eta 84an kokapen berria izan zuten San Nikolas elizatik hurbil, eta hor urte bi edo eman zituen. Azkenengo kokalekua Sendejako arkupetan izan da, aurten arte, Sendejan lanetan baitira eta Areatza erdian ipini behar izan da.

Eta jaietan sartuta, jaietako jantziak mintzatuko gara, urteetan zehar aldaketak jasan ditu eta, praktikotasunezko aldaketak alegia (badakizue,

izan baita. 1982an hasi zen bere ibilera mundutxo honetan Agurtzane Eizagirre, eta bere "curriculum" a irakurritz gero harrizke modukoa da zenbat sari irabaz daitezkeen ikustea. Hau ez da handikeria. Izan ere, 1994. urtean ordura arte sukaldari onenak izandako hiru konpartserori omenalditxo bat egin zitzaion, eta euren artean Agurtzane egon zen. Eta harezkerio sariak jasotzen segitzen du...

Orain bai, amaitzeko gogorapen onak ekartzen dizkigun anekdota bat aipatuko dugu. Berak esaten zuen konpartsa guztietakoa zela, baina benetan, konpartsero osoa - legalki - Kaixokoa zen Urbano Ruiz Laorden, Bilboko Udal Musika Bandako urte askotan zuzendaria izan zena, eta konpartsa honetako kideok apurtxo bat harro sentitzen dira.

Beno, eta jaiak dagoeneko amaituak direla, orain Tomas Deuna, Iñauteriak, datorren urteko Aste Nagusiaz... pentsatzen hasiak gara (Puf, zenbat lan!)

bertan


I N K E S T A

# Udako ligeekin, orain udazkenean, zer??



**Jon Ander**  
Txurdinaga

«Ligeak bigarren mailako kontuak dira.»



**A i t o r**  
Santutxu

«Hurrengo udarako.»




**A i t z i b e r**  
Santutxu

«Datorren urtean lige gehiago eta neguan deskantsatzera.»




**N e r e a**  
Santutxu

«Betiko ligearekin eutsi eta hurrengo udara arte.»



**I ñ i g o**  
Bolueta

«Aukerak udan zein neguan daude, beraz, berdin dio. Ez dago jendeak komentatzen duen besteko ligerik.»




**R o b e r t o**  
Bolueta

«Etor daitezela udakoak eta negukoak ere.»



**Z i o r t z a**  
Santutxu


«Berriak bilatu behar dira, gustukua aurkitu ez baduzu behintzat.»



**S e r g i o**  
Santutxu

«Amaitutzat jo dezatela.»

# Alternatibaren irratia: Tas Tas



97FM  
**TAS-TAS**  
IRRATI LIBREA



## Urtzi Urrutikoetxea

Irrati komertzialen artean, FM-n gabiltzala, 97 zenbaki ingurutik pasatzean dila sumatuko dugu Tas Tas. Programazioaren atal handiena "luntzean hasten da, eta batetik kanpotik datorren jendea dago, astero programa zehatz bat egiteko konpromezuz, musikalak gehienbat, eta bestaldean, irratiko bertoko jendea, egunik egun emandegia aurrera ateratzeak dakartzan lanak eginez, albistegia prestatuz, hau edo hura atondu, faxak jaso, zuzeneko egin..."

Eta hau guztia bazkideen kuoten bidez egiten da, eremu

Santutxu edo Begoñan behera, Prim kalean dago Tas Tas irrati librea. Alternatiboa izan liteke emandegi hau biltzen duen ezaugarria, beren buruari deritzen legez, gai alternatiboen tratamendu alternatiboa egiten dute. Badira urte batzuk sortu zela eta piskanaka hainbat laguneren ohiko sintonia bihurtzea lortu du. Azkenaldian gainera, apustu gogorra egin dute bazkide digitalizatuz, bazkide berriei lekua eginez eta programazioa eraberrituz. Bertin, irratiko Aritz Totorikarekin bildu zen barnetik nondik norakoak ezagutzeko.

komertzialetik kanpo egoteko bidea hau delakoan eta inoiz halakoren diru faltak proiektua ito ez dezan. Hala ere, gogor egin dute lan uda osoan zehar, udagoienetik aurrera programazioa eraberrituta eman ahal izateko, estudioa ere hobetuz. "Aste

Santuan-edo, pausua emateko sasoa zela erabaki, diru kontuak ikusi eta urratsu garrantzitsu honi ekin genion", zalantzarik gabe programazioaren maila igotzen lagunduz.

### DIGITALIZAZIOA

Honi esker musika guztia sintetizatzea lortu dute, oraindik guztia erabiltzeko disko gogorrik ez badute ere, laurhun ordu baino gehiago dauzkate grabatuta, eta ordu laurdeno irratiaren kuña ere ordenadoreak berak jartzen du. Uztailetik aurrera gainera, beste kuña bat ezartzea ere erabaki zuten, Egin-en itxiera salatzeke eta adie-

razpen askatasuna eskatuz.

Hogei lagun baino gehixeago dabilta eguneroko lan horretan edozelan ere, ordenadoreak dena egiterik ez baitago. Oraindik ez dute zuzeneko programetarako erabiltzen, baina kasu denborari. Eta emisio eremua ez da Mahatserri edo Bilbora mugatzen, ibaiadar guztiko herrietan jaso daiteke gutxi gora behera.

Alde honetan, Euskal Herri mailan aurrerapausu hau eman duten apurretako da Tas Tas. Txikienez ez daukate honelakorik erdiesteko biderik. Era berean, erdi loakartuta gelditu zen Euskal Herriko irrati libre guztien arteko elkargunean ere badaude, aurten Iparraldekoen ekimenez egindako Euskal Herria Zuzenean jaialdian egoterik izan ez badute ere.

Baina urratsak urrats, ekimena ez da ezer jendeak berea jarri gabe. Batzuek, esan bezala, diru apurra emanez, besteek programaren bat ere eginez, edo eguneroko turnoak

## TAS TAS irratiaren programazioa

IRRATSAIOEN IZENA	EGUNA	ORDUTEGIA
LOCAL DE ENSAYO	ASTELEHENA	21:30 - 00:30
ANTIGUOS EN TAS TAS	ASTEARTEA	19:00 - 20:00
AI ENEAK!!	ASTEARTEA	21:30 - 22:30
METAL ATTACK	ASTEARTEA	22:30 - 00:30
TAS TAS INTERNACIONAL	OSTEGUNA	21:30 - 23:00
EL JAZZ QUE NO LLEGA AL AYUNTAMIENTO	OSTIRALA	20:30 - 20:45
KVOLEMA	OSTIRALA	22:30 - 23:30
AL LORO KOLEGA	IGANDEA	16:00 - 18:00

aurrera ateraz. Kanpotik datozenek, "kontratu antzeko bat daukate, hiru hilabetekoa, emandegiarekin konpromezuak zehaztuz, programa mota-eta horrelakoak...". Eta seriotasuna behar dela jakina, astero-astero aurrera ateratzeko, baina benetan esperientzia polita izan daiteke horrelako ekimenetan parte hartzea.

### EGUNEROKO LANA

Zuzeneko programazioa faxen bidez heldutakoarekin egiten dute batez ere, inoiz kontu puntualei sakonagoa egiten badiete ere. Hala, edozein erakunde, talde edo bestelakok bidalitakoa uhin bidez aire-ratzen da Tas Tas-en bidez. Edozelan, alde horretan pozik daude "erreferentzia bagarelako, inguruko taldeek normalean bidaltzen dizkigute oharrak beren ekimene berri emanez".

Aldaketa igarri dute hala ere Egin Irratia itxi dutenetik. Izan ere, lehenagotik oharrok jaso



arren, "horretan ez pentsa askoz gehiago jasotzen ditugunik, lehen ere bidaltzen zizkiguten abisuak", entzulegoa igo dela nabaritu dute. Eta ez dute ezelango ikerketaren datu beharrik, egunerokotasunak argi egiten du berba. "Bai, asko igarri da, orain kaletik-eta gehiago esaten digute, aizu lehengo egunean entzun nuen presoena programa-edo beste hau...".

"Eta akatsak egi-

nez gero gehiago esaten digute, txo, lehengoan...".

Eta bitxikeria bat: Internet-en orria daukatenez, "eta jendea badator begiratzera eta mezuak heltzen dira, atzerritik batez ere, Egin-en kontuarekin adibidez". Horri esker adibidez, Latino-amerikako irratiarekin batera programa egiten dute.

Beraz, gure inguruan daukagu irrati libre hau. Ondo antolatuta, aurrera egiteko gogoz eta indarrez, bere txikitasunean gorantz entzulez eta laguntzaile zein partehartzailez, ziur norbaitek bere tarte ere eskaini nahiko liokeela irratiaren mundu berezi honetan, merkatuaren legeek agintzen ez duten uhinetan.



J O N E T X E B A R R I :

# «Irratian entzuleak sortzen ditu imajinak, kontatzen duenak sujeritu besterik ez du egiten»



Irratian hasi zen, garai batean ETBko informatiboak aurkeztu zituen eta gaur egun, Radio Euskadin dabil Euskal graffiti kultur saioa aurkezten. Orainarte euskaraz aritu izan da beti eta bere burua erdaraz ikasten ikusten du zeberiotar honek. Kazetaritza munduaz eta beste hainbat kontuz hitzegin dugu Jon Etxebarriekin.

⇒ **Zuriñe Uriarte**

**berton:** Zer dela eta kazetari? Txikitatik nahi zenuen zerbait da edo horrela suertatu zen?

Jon: Ni intruso bat naiz ofizio honetan. Afizioz beti gustatu izan zait. Nire gazte urtetan, Radio Bilbaok umeentzako programa batzuk antolatzen zituen, bertan lehiaketa bat egiten zen, pelikula batzuk ematen ziren,...han egoten nintzen ni laguntzen edo.

**berton:** Zeintzuk izan ziren zure hasierak kazetaritza munduan?

Jon: Kazetaritza erreziklaje garai bat eman zen, eta urte horietan profesionalak ez ziren euskaraz arduratu eta ni euskararen munduan nenbilenez lanean, editorialetan, ...konbokatorea bat egiten zuten, adaptazio moduko kurtso bat. Hori izan zen

nire preparazio guztia, baina gero egiten ikasten da.

**berton:** Irratian hasi zinen, gero telebistan informatiboak aurkeztu zenituen,...

Jon: Bai, ni irratian nenbilan eta mailegu bezala joan nintzen telebistara, ETB eta Euskadi Irratiaren artean harreman onak daude eta beno, han ibili nintzen, baina gero irratiara itzuli nintzen.

«Nahiz eta euskaraz jakin, jende askok erdarazko irratiak sintonizatzen ditu»

**berton:** Zeinekin geldituko zinateke?

Jon: Bat aukeratzekotan, irratiarekin geldituko nintzateke. Ez da abila goa naizelako batean edo bestean, baina irrati

errazagoa ikusten dut, kontrolagarriagoa.

**berton:** Kamarari beldurra, akaso?

Jon: Ez, ez da kamara. Irratia sinpleagoa iruditzen zait, imaginazio pixka bat eta kontatzeko zerbait izanez gero, hori nahikoa da irratian. Telebistak, ordea, denen arteko adostasun bat eskatzen du, bakarrik ezin duzu ezer egin. Norbaitek agindu egin behar du, errealizadore bat ezinbestekoa da,... disziplina handia eskatzen du. Gainera, telebistan imajinak behar dira, irratian aldiz entzuleak sortzen ditu imajinak, kontatzen duenak sujeritu besterik ez ditu egiten.

**berton:** Telebista, beraz, zailagoa?

Jon: Bai, medio gutxirekin

behintzat, bai. Telebistan zerbait dexente egiteko dirua behar da, medioak, talde bat. Irratiak ez du holako azpiegiturarik eskatzen. Hori bai, telebista zailagoa den aldetik, konpletuagoa ere ikusten dut.

**berton:** Hala ere, irratiak izango du zailtasunik...

Jon: Beno, irratian entzuten egon daitekeenarekin sintonia bat izan behar duzu, nori hitz egiten ari zataizkion kontutan hartu behar da. Gainera, irratian lan egiten dugunok akats nagusi bat daukagu: ez gara isiltzen. Hitzegiten hasten gara eta noizentzat ari garen ahazten dugu. Askotan, jendeak musika izaten du nahiago hitza baino, baina gu hitz egiten hasi orduko, ez gara gelditzen. Alde horretatik, errespetu eta atentzio falta bat egoten da.

**berton:** Telebistara itzultzeko asmorik baduzu?

Jon: Hango esperientzia positibotzat daukat, ontzat. Informatiboetan ibili nintzen, baina

« Irratia errazagoa iruditzen zait, kontrolagarriagoa. Imaginazioa eta kontatzeko zerbait izatea nahikoa dira irratian »

telebistan beste hainbat genero daude egiteko. Hala ere, momentuz irratian nago eta ez daukat aldatzeko asmorik.

**berton:** Ze genero ikutuko zenuke, oraindik ezagutzen ez duzuna?

Jon: Beno, orain irratian ere gauza berriak egiten nabil, orain arte euskaraz aritu naiz beti eta

gaur egun erdarazko programa bat egiten dut. Erdaraz ikasten nagoela esan daiteke, garai berri batean sartu naiz.

**berton:** Saio kultural bat egiten duzu, gaztelaniaz. Euskarak badu lekurik programa horretan?


Jon: Gure entzuleak ohiturik daude erdaraz entzuten. Nahiz eta euskaraz jakin, jende askok erdarazko irratiak sintonizatzen ditu, eta guk hori kontutan hartzen dugu programa egiteko orduan. Azken finean, horretarako gaude gu, erdaraz entzutera ohituta dagoen jendeari kulturari buruzko gauzak kontatzeko.

**berton:** Zelan ikusten dituzu gaur egungo hedabideak? Gizartearen kontrola omen dute...

Jon: Irratian, sarritan, berri gutxi izaten dugu emateko, notizia bat dagoenean eman egiten dugu eta une hori interesgarria izaten da, jendeak gustora entzuten du. Hala ere, berria ematen duenak irudi batzuk sortzen ditu eta hori gustokua izan daiteke edo ez. Gainera, mundu guztia ez da kontalaria, pertsona batzuk gustora entzuten ditugu eta beste batzuk ez.

**berton:** Zer esango zenioke kazetaritza munduan sartu berri den norbaiti?

Jon: Ofizioa uzteko, beste edozein ofiziotan sartzeko. Gaur egun nola dagoen ikusirik, borroka haundiak egin behar dira kazetaritza lan egin ahal izateko. Alde batetik, enpresak dira hemen agintzen dutenak. Bestetik, kazetari asko dago gaur egun, bekaduna izatera kondenaturik. Bekadun bezala egiten duzu lan eta hori bukatzen denean, ez dizute kontraturik egiten, etxera bidaltzen zaituzte. Mundu honetan lan egiteko asko borrokatu behar da.





# MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

## "Baserritik Plazara" Etxebarria parkean



Argazkia: Iñigo Azkona.

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak, Eusko Jaurlaritzak, Baserriko Produktuak erakundeak eta Bilbao Bizkaia Kutxak antolatuz lehengo urriaren 2, 3 eta 4an, barikua, zapatua eta domeka hurrenez hurren, "Baserritik Plazara" izeneko ekitaldia egin zen Begoñako Etxebarria parkean. Ekitaldi honen helburua bertoko baserritarren produktuak ezagutzera ematea da gehien baten. Honekin batera jeneroa saltzeko aukera ere izan zuten baserritarrek, baita ondo aprobetxatu ere. Izan ere, salmenten kopurua espero baino askozaz handiagoa izan zen. Zapatu arratsaldean bertan postu gehienak jenero barik geratu ziren, hain zuzen ere.

Berrogeita hamabost produktore, hogeita hamabost abeltzain eta nekazariari hainbat zerbitzu eskaintzen dizkioten hogeita hamar bat enpresa izan ziren Etxebarria parkean egun haietan. Bisitariak, antolatzaileen esanetan, berrogei mila lagun inguru

izan dira, egin zuen eguraldi txarrarekin kopuru ederra benetan.

Produktuen salmenta eta erakusketaz gainera hainbat kultur ekitaldi egin ziren. Besteak beste, Oskorri, Tapia eta Leturia eta beste talde eta kantari batzuen kontzertuak, herrikirolen eta baserriko lanen erakustaldiak... Bitxikeriak ere ez ziren falta izan, zaldi arabeen ballet-a, edo kosakoen espektakulua.



**berton:** Ze paper betetzen du hor izakerak? Izakera jakin bat izatea beharrezkoa da kazetari izateko?

Jon: Noski baietz. Txismoso eta kurioso bat izan behar zara, paperak irakurtzen ibili behar duzu etengabe,... irakurtzea gustoko izatea eta kuriositatea oso garrantzitsua da balio ahal izateko. Hala ere, lehen esan bezala, karrera bukatu eta gero beste edozein gauzatan sartu behar zara: politika, itzul-pengintza,... nahiz eta izakera aproposa izan, gaur egungo egoera ikusirik, kazetaritzatik kanpo bukatzen duzu lanean.

**berton:** Kazetari ez izatekotan, zertan ibiliko litzateke orain Jon Etxebarri?

Jon: Beno, bihar zer egingo dudan galdetuko bazenit, irratian jarraituko dudala esango nizuke. Hau utzi ez gero, beste edozertara aldatuko nuke, artisautzara, adibidez. Jendeak apreziatzen duen zerbaite egingo nuke. Itzultzaile, kontatzeko zerbaite izanez gero idazle,...

**berton:** Ez zara kazetaritza mundutik gehiegi aldentzen! Itzultzaile, idazle,...

Jon: Bai, beno, baina hori profesio bezala baino, entretenimentutzat

hartuko nuke. Bestalde, zerbitzu herri batetan bizi gara eta horrek dauka, beraz, etorkizuna. Gaztaia egin, pintxoak pres-tatu,... hor dago etorkizuna, eta ez kazetaritzan.

«Ziurtasun minimo bat erabiltzeak ematen dio euskarari, euskara azken finean erabiltzea da».

**berton:** Gure auzoari begira, zelan ikusten duzu Santutxu kultura aldetik?

Jon: Ekipamendu falta dauka. Santutxu herri bat dela esan daiteke, herri bertikal bat, zeinetan kultur ekipamenduen falta oso nabaria den. Gure artean harreman asko ditugu, konpartitu beharrekoak, baina konpartitze hori emateko ez dago erraztasunik. Nik ezagutu izan ditut auzoan zeuden hainbat zinema, eta gaur egun ez daukagu bat ere ez.

**berton:** Eta euskararen egoera auzoan?

Jon: Presentzia bat dauka eta ez dago txarto ikusita euskaraz egitea, nahiz etae beti dagoen

norbait txarto ikusten duena. Alde hortatik normaltasun bat dagoela esango nuke. Euskarak herri sentimenduarekin lotura zuzena du, eta aldi berean, kulturarekin. Hori bai, euskarak ez dauka beste hizkuntza batzuek duten ziurtasuna, euskara azken finean erabiltzea da, minimo hori erabiltzeak ematen dio. Komunikaziorako balio duen hizkuntza da euskara, gure hizkuntza.

### 10 galdera labur

**Amets bat:**

Nire inguruko guztiekin hiriaren bukaerara iristea

**Komunean irakurtzen duzu?**

Bai, paperez beteta dago etxeko komuna

**Euskal musika talde bat:**

Kepa Junkera

**Idazle bat:**

Koldo Izagirre

**Liburu bat:**

Oraingo gazte eroak, Jose Azurmendirena

**Pelikula bat:**

Pulp Fiction

**Bazkari bat:**

Indabak, marmitakoa.

**Euskal Herriko herri bat:**

Zeberio

**Mendia ala hondartza?**

Mendia

**Mendi bat:**

Auñamendi



# Giro ederra Justugunean



Otxarkoagako Euskal Txokoak laugarrenez antolatu zuen abuztuaren 8an Justuguneko erromeria, lehengo denboran Arbolantxa eta Begoña guztiko baserritarrak batzen zituen festa berreskuratuz. Goizetik hasita goizaldera arte luzatu zen ospakizuna. Egitarauan zeuden ekitaldi guztiak egin ziren, goizeko mezarekin eman zen hasiera, horren ostean Tetuane landan Manolo Leginarne trikitixarekin eta bertsolariekin eman zen goiza. Herri bazkaria gozoa jan eta arratsaldean herrikirolak eta erromeriara egin ziren. Esan bezala, jaia goizaldera arte luzatu zen, erromeria amaituta ere, oholtzan ez ziren espontaneoak falta izan eta.



**Lanbroa**

**Otoio Mendi**  
Sta. Klara

**KATKU**

# Basarrateko Azoka berpiztu da Santutxun



Santutxuko Jai Batzordeak eta Euskal Txokoaren eskutik Basarrateko landa azoka-plaza egin zen berriro joan den irailaren 26an. Santutxuko leku honetan urtean azoka bi egiten ziren aspaldian, martxoan lehenengoa eta Domusantu egunean bigarrena, bigarren hau ganadu-feria ezaguna zen inguru guztian. 1966 urtean egin ziren azkenegoz. Honen jakitun Santutxuko Jai Batzordeko eta Euskal Txokoko partaideek arrazoi nahikoak ikusi dituzte usadio hau berres-

kuratzeko. Bateko, bertoko baserritarren produktuei erakuslehoia eskaintzeko Bilboko auzo handi honetan. Besteko, euskara eta euskal kulturari beste plaza bat emateko. Honela bada, EHNE sindikatua eta Bilbao Bizkaia Kutxaren laguntzarekin eta Udalaren trabak gorabehera, hogeita hamar postu ingurutan hamalau produktorek eskaini zituzten euren jeneroa Basarraten. Ortuariak, pastelak, gaztaia eta bestelako jatekoekin batera Bizkaiko sagardoa eta txakolina dastatzeko eta erosteko aukera ere egon zen. Honekin batera, eta festa giroa emateko asmoz, fanfarreak, dultzaineroak eta txistulariek alaitu zuten auzoa goizeko lehenengo ordutik. Basarraten bertan Txiplas eta Mañukorta bertsolari-baserritarrak eta Arbo-

**jo ta ke**  
**Otxarkoaga**  
**euskaldundu arte!**  
**Pa... Yak baditu alternatibak**  
*demokratikoak noski!!*

**PRESOAK KALERA**  
**AMNISTIA OSOA!**  
**SAAK**

E  
R  
R  
I  
K  
A  
R  
R  
I  
A

## Kalamua plaza inauguratu berria lupeztuta

Lehengo urriaren 8an inaguratu zuten Santutxun Kalamua plaza, Ogoño, Sagarminaga eta Kalamua kaleen artean dugu. Berri ona inguruko auzoki-deentzat, Santutxun hain urriak diren gune zabalen zerrendara beste bat gehituaz.

Hala ere, inauguratu eta handik egun bira plaza lupetzaz eta urez bete zen, ur hodi bat lehertu ostean. Plazan ez ezik inguruko kaleetan, lonjetan eta garajeetan ere izan ziren kalteak.



Argazkia: Inigo Azkona.

Kalamua plaza

## Metroko igogailu berria zabaldu dute

Santutxuk dauka Bilboko metroko geltokirik sakonena. Kanpora irteteko, eskailera mekanikoez gain, gutxitu fisikoentzako igogailuak egon dira, baina gehienak hau zerabilte ikusirik, handitzea erabaki zuten. Urriaren 13an zabaldu zuten igogailu berria, eta metroko bidaiari guztiek

erabili ahalko dute, hogeita bi lagunek igoaldiko. Orduan bi mila lagun garrantzeko aurreikuspena egin dute. Santutxuko metro geltokiko igogailuaren inaugurazioan Josu Ortuondo Bilboko alkatea, Josu Bergara Bizkaiko Aldun Nagusia eta Josu Sagastagoitia Metro Bilbaoko gerentea egon ziren.



Argazkiak: Inigo Azkona.

## Mahatserriko konpartsak Aste Nagusian

Zazpi gau eta zazpi egun baino gehiagokoa da Bilboko Aste Nagusia, aste bilbainoa benetan. Eta bilbotarren artean, mahatserritarrek ez dira gutxi, ezta atzean geratu ere. Festa animatzeko orduan konpartsa askotan izan ditugu auzokoak, eta gure auzoetako konpartsak ere badira: Uribarri, Otxarkoagako Pa...Ya eta Aixeberri eta Begoñako Kaixo. Laurek ipini dute txosna eta hartu dute parte jaietako hainbat ekitalditan, animatu eta ibili. Aupa zuek!



Argazkia: Inigo Azkona.

Pa...Ya-ren txosna

## Ahateak Txurdinagako parkean



Argazkiak: Inigo Azkona.

Lehenengoak ez badira ere, paitak etorri zaizkigu Txurdinagako Europa parkera. Lehengo irailetik han dabilta urmalean igerian eta inguruan dantzan. Ea oraingoan ez diguten ihes egiten.

## Begoñako gasolindeko lanak hastear daude

Begoñako gasolindegi zaharrea aparkaleku berria eraikiko dute. Aparkaleku hau bi pisukoa izango da eta 183 kotxerentzako lekua izango du. Honen gainean enparantza berria egingo dute. Lanok, Altair S.A. enpresak burutuko ditu.

## Uribarriko jaiak



Irailak 25 hasi eta hiru egunetan zehar ospatu dituzte jaiak Uribarri auzoan. Ostiralean hasiera eman zieten txupinazoa eta kontzertu nagusiarekin: bertako talde bat eta gero Etsaiak. Honek jende asko erakarri zuen, auzokoak zein inguruetako auzoetakoak. Izan ere, gabarik jendetsuena izan zen.


Larunbatean haurrentzako jolasak goizez eta gabaz dantzaldia. Ausartenek euren trebeziak erakusteko aukera izan zuten "play-back" txapelketan. Eurria ari zen... .

Azkenengo egunez Uribarri lapikoz eta kazuelaz bete zen makailu txapelketa zela eta. Ia aurreko eguneta baino jende gehiago egon zen, denak gose edo ... Txapelketa ospetsua dagoeneko, Santutxutik ere partehartzea izan zen eta ). Honela eguna pasa eta arratsaldean itxierako txupinazoa botata Uribarrigonek jaiak agurtu zituen hurrengo urte arte.

## Begoñako erromeria

Lehengo urriaren 11n Begoñako Ama Birjinaren erromeria egin zen. Orain urte batzuk Begoñako Hermandadeak berreskuratu zuen ospakizun hau. Aurtengoan eguraldiaren gora-beheren beldur barik, eta jai-zubiari desafiatuz, jende ugari batu zen basilikaren aurreko plazan. Postu ugari zeuden bertan, erroskilak ere ez ziren falta izan.

# zure publizitatea



94 473 54 48

# Har ezazu olatua!

Uda bukatu eta gero udan asko praktikatzen den surf-a oraindik ere hondartzetan ikus dezakegu. Surf-a, uda gainditu eta udazkenean ere barneratzen da. Bestela, kostaldera joan eta ikusten diren surfer edo surflariak begiratu besterik ez dago. Hauetako batekin aritu ginen berbetan.



## ☞ Unai Cuevas

Jon, Mahatserrian bizi eta surfean aritzen den horietako bat dugu. Mahatserrian momentuz hondartzarik ez dagoenez Bizkaiko kostaldera abiatzen den surflaria da. Gustokuen duen hondartza Laga da eta hara abiatzen da olatuen gainean mugitzera. Mundaka, Bakio, Sopelan ... egon izan da baina hala ere bere hondartza Laga dela dio. Surfean hasteko adinik ez dagoela aitortzen du. Hala ere, pixka bat berandu hasi ote zen kezka dauka, 14 urterekin hasi baitzen. 10-12 urte tartea oso egokia iruditzen zaio kirol honetan hasteko.


Hawai-ko irletatik datorren surf-a erabateko kirola dela dio, gorputzaren goi zein behealdean ekinean jartzen baitira; olatuaren bila joatean besoak erabiltzen dira eta olatuaren gainean ohola

mugitzean, aldiz, hankak. Materialari dagokionez ohola ezinbesteko elementua da eta horrekin batera «inbentoa» deritzona (orkatila eta ohola lotzen dituen kordela). Jankia ere nahiko beharrezkotzat jo daiteke nahiz eta udan bainujantziarekin nahikoa izan. Kirol merkeagoak badaudela ere aitortzen du Jonek baina hala ere ez zaio oso kirol garestia iruditzen. Beste ezinbesteko gastua hondartzetara egiten diren joan-etorriak izaten dira.

Surferoen artean beren arau eta ohiturak egoten dira. Hauen artean bi aipatuko genituzke: Batetik, hondartza bakoitzak bere ohiko surflariak dituela eta beraz «atzeritarrak» izanik lasai ibili. Bestetik, olatua lehen hartzen duenak lehen-

tasuna du olatu horretan eta biek batera hartuta olatu parterik luzeena duenak. Jonek, tirabira bat baino gehiago izan duela aitortu digu baina guztiak hitzetan geratu direla. Honetaz gain, surflari bi uretatik atera eta ukabilka ikusi dituela esan digu, beraz tira-bira batzuk ez dira hitz soiletan bukatzen.

Olaturik onenak erraz apurtzen ez direnak izaten dira eta tamainari dagokionez Jonek ez



oso handi ez oso txikiak ditu gustoko (2 metro ingurukoak). Olatu handiekin momentu latzen bat pasatutakoa dugu baina zorionez emaitza larririk gabe. Surf-ean aritzeko garairen bat aukeratu behar badu Jonek udazken aldea aukeratzen du nahiz eta onartu beste garai batzuetan ere oso olatu aproposak egoten direla.

Surf-ean aritzeko itsasorik ezego-kiena itsaso nahasia da. Olatu eta itsaso onak egonik hainbat ordutan aritu ohi dira surflariak; lehertuta bukatu arte.

Jonek, Lagako txapelketan parte hartu izan du. Ez zaio txapelketetan ibiltzea gustatzen, nahiago du bere erara ibili. Gainera, aitortzen du edozein txapelketatan parte hartzeko maila nahiko altua izan behar dela.

Surfer-ek olatuak hartzerako momentuan euren arteko konpetentzia ez ezik «kortxeroen» konpetentzia ere izaten dute. «Kortxeroak» boogie izeneko ohol edo taula erabiltzen dutenak dira; eta hauekin ere, surfer-ekin bezala, hika-mikak izaten

dituzte. Bestalde, gehiago ligatzearen kontu hori gezurra dela uste du Jonek, pelikulek eta telesailek sortu duten mito faltsu bat dela.

Hau honela, esan beharra dago surf-a beste hainbat kirol bezala, sakrifizioa behar duen kirola dela eta maila on bat lortzeko ordu ugari igaro behar direla uretan. Baina hau ez da ezer gero olatuen gainean dantzan egotean sentitzen den gozamena kontutan hartuz.

# kulturberriak

## Aiora Renteria, Zea Mays-eko abeslaria

Euskadi Gaztea-ren azken maketa lehiaketa irabazi zutenetik, Zea Mays izen ezaguna bihurtu da musika munduan. Gaur egun beren lehenengo diska grabatzen daude Lorentzo Records-en, GOR disketxearen eskutik. Taldearen sorrera, gustu eta musikari buruz aritu gara taldeko abeslariarekin.



**AIORA:** Zea Mays artoaren izen zientifikoa da, latinez. Liburu baten irakurri genuen eta soinu gustatu zitzaigun. Gainera, musikalki ez du esanahirik, zuk Zea Mays entzuten duzunean ez duzu taldeak egiten duen musika imaginatzen. Zentzu horretan izen aproposa iruditu zitzaigun.

**berton: Euskadi Gaztea - k o maketa lehi-**

**aketaren eskutik heldu zaizue arrakasta eta fama. Zer suposatu du honelako lehiaketa bat irabazteak?**

**AIORA:** Jendeak taldea ezagutzea. Hemen gehien entzuten den irratia Euskadi Gaztea da eta honen bidez, taldea pila bat entzun da.

**berton: Honen kontura, agenda betetzea lortu duzue?**

**AIORA:** Bai, beno. Udan nahiko trankil ibili gara lehen diskaren grabaketa prestatzen egon garela, eta ezinezkoa da kontzertuak ematea eta diskarako kantak aldi berean prestatzea. Baina neguan lehiaketarena nabaritu dugu,

lehenengo hilabeteetan kontzertu bakarria eman genuen eta hurrengoetan hogeit bat izan genituen. Diferentzia nahiko argia da, beraz.

**berton: Aipatu duzunez, diska grabatzeko asmoa daukazue.**

**AIORA:** Bai, irailaren 21ean hasi eta hiru astez arituko gara grabatzen. Gero, komunikabideen roiloa dator: elkarrizketak, erreportaiak... egin beharreko gauzak dira.

**berton: Noizko izango da kalean?**

**AIORA:** Azaroan bukatuta egongo da, baina ziuraski Durangoko azokan argitaratuko dugu. Hala ere, diska bukatu bezain pronto, kontzertuak ematen hasteko asmoa daukagu.

**berton: Musikari dagokionez, zelan definituko zenuke, definitzerik baldin badago, zuen musika?**

**AIORA:** Hori oso zaila da. Bakoitzak, bere aldetik, influentzia ezberdinak ditugu: Pearl Jam, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Eskorbuto, heavy metal,... denetarik.

**berton: Ezberdintasunik suposatu al du abeslaria, kasu honetan zu, neska izateak? Zergatik neska? Horrela suertatu zen edo...**

**AIORA:** Elkar ezagutu eta taldea osatzeko aukera ikusi genuen,

berton

besterik ez. Gainera, abeslaria neska izatea sarriago ikusten da orain. Kashbad, Alaitz eta Maider...gero eta gehiago daude. Ezberdintasunaren aldetik, nik gutxienez, ez dut batere somatu. Horrela irten da eta listo.

**berton: Nork idazten ditu abestiak, bai musika, bai letrak?**

**AIORA:** Denen artean egiten dugu, bakoitzak bere ideiak erakutsi eta besteek, ideia horren arabera, inprobisatu egiten dute. Letrak, normalean, nik idazten ditut, euskara besteek baino gehiago kontrolatzen dut eta gainera, nik abesten dudanez...

**berton: Beraz, abesti guztiak euskaraz egiten dituzue?**

**AIORA:** Bai, oraingoz horrela aterata da, baina ez da erabaki baten ondorioa. Inprobisatzen gaudela ingelesez, gaztelaraz,... ateratzen bada, ba aurrera jarraituko dugu ateratakoarekin. Momentuz euskaraz irten zaigu dena, baina ez dugu inolako mugarik alde hortatik

**berton: Zer isladatu nahi duzue abestietan?**

**AIORA:** Pertsona baten barne sentimenduak. Orain arte, euskal taldeek letra politikoak egiteko tendentzia erakutsi dute, eta gizartearen arazoa izanik, isladatu behar den zerbait da, baina orokorrean, gizakiok barne arazoak ditugu, politikatik kanpo esan nahi dut. Gu arazo horietaz idazten saiatzen gara, Euskal Herriko musikan nahiko bazterturik egon baita gai hau.

**berton: Zenbait kantetan itsasoa aipatzen duzue.**

**AIORA:** Bai, hori nire gauza da, nahiko obsesionatuta nauka itsasoak. Orduak eta orduak eman ditzaket itsasoari begira, besterik gabe. Izugarria iruditzen zait bere indarra, dena kontrolatzeko duen gaitasuna.

Maitasun-gorroto erlazioa bezala ikusten dut, gozatu daitekeen zerbait da baina beti errespetuz. Kristoná da.

**berton: Nongoa da taldea?**

**AIORA:** Piti eta Asier Errekaldekoak dira, Ruben Iralakoa eta ni, Santutxutarra. Bilbokoa, beraz.

**berton: Zuen abestietan zuen jatorria isladatzen saiatzen zarete? Esan nahi dut, talde bilbotarra izanik, hemengoak zaretela igertzea nahi duzue?**

**AIORA:** Ez bereziki. Nozbait ager daitekeen zerbait da, baina ez da zuzenean bilatzen dugun zerbait.



**berton: Musika munduan sartzen diren guztiak dagoen espazio falta somatzen dute. Nola konpontzen zarete entsaiatzeko?**

**AIORA:** Iralan entsaiatzen dugu, bertan garaje antzeko bat alokatzen dugu eta han aritzen gara.

**berton: Zelan ikusten duzu euskal musikaren eboluzioa, eman dituen aurrerapausuak, Hertzainak, Kortatu, Cica-triz,... bezalako taldeak ateratziretik gaur arte? Hau da, Rock Radical Vasco delakoaren boom-a eman zenetik, euskal musikan aldaketa haundiak somatu dituzue?**

**AIORA:** Bai, aldaketak eman dira, baina ez oso sakonak. Euskal Herrian pixkat atzeraturik gabiltza munduarekiko. Grungea, adibidez, hilda dagoela esaten dute, eta hona oraindik ez da heldu ere egin. Ez dut esan nahi atzeraturik ibiltzea txarra denik, baina hemengo taldeek musika nahiko itxia egiten dute; estilo bateko taldea aterata orduko, hurrengo talde guztiak estilo horretan oinarritzen dute beren musika. Gu estilo ezberdin bat egiten saiatzen gara, inoren lanean oinarritu barik.

**berton: Musikatik bizitzeko aukera eta nahia duzue?**

**AIORA:** Nahia bai, baina, oraingoz behintzat, ez dugu posible ikusten. Garik esaten zuen: «Euskadin rock and rollak ez du inoiz dirurik emanen...». Kontzertu garaietan dirua ateratzen da, baina ez bizitzeko beste. Gainera ekipo berriak erosi behar dira,...

**berton: Zure eguneroko bizitzak aldaketa haundiak izan ditu taldean zabilzanetik?**

**AIORA:** Aldaketa nagusia entsaiatzen ematen ditugun orduak dira, denbora asko kentzen dute, baina gustora gabiltzanez, ez zait axola. Bestalde, arraroa da kaletik joan eta norbaiti «hori Zea Mays-eko abeslaria da» entzuten esatea.

**berton: Zer da Zea Mays-etik gehien betetzen zaituena?**

**AIORA:** Gure artean dagoen giroa kristoná da. Batera iritien gara, juergak egiten ditugu,... alde hortatik oso gustora nago. Gainera, gustatzen zaizun musika egiten duzu, musika horren parte zara. Horrek asko betetzen du.

↳ **Zuriñe Uriarte**

**berton: Zeintzuk izan ziren Zea Mays en hasierak? Non ezagutu zenuten elkar?**

**AIORA:** Taldeko kide guztiak magisteritzako fakultatean ikasi dugu. 3.mailan Londresera egin genuen ikas bidaia eta bertan ezagutu ginen. Garai hartan bakoitza beste talderen batean zegoen, nik «Dbktu» taldean abesten nuen, Ruben «Los txupatxarkos» taldean zebilen eta Piti eta Asier, Demostikuadrán. Handik hiru hilabete tarera Errekaldeko lehiaketa batera aurkezteko aukera ikusi eta Zea Mays sortu genuen.

**berton: Zergatik Zea Mays?**

# Abian da Txapelketaren trena.

Uda osoan zehar sailkapen saioak egon ostean, udagoienaz batera Bizkai-Arabako bertsolari txapelketako final laurdenak hasiko dira. Eta aurreko urteetatik zuzenean sailkatuta eta udan zehar Marta Ortizek lortutako txartelari esker, ez da Santutxuko Bertso Eskolako kiderik faltako saiootan. Txapelketaren afitxean ageri denez, Amurrioren urriaren 18an hasi eta Bilboko Arriaga antzokira helduko dira hogeita hamar bertsolarietatik zortzi onenak, abenduaren 28an jokatu den finalera. Aurretik, bost final laurden eta hiru final erdi izango dira. Lehengoa, esan bezala Arabako Amurrio herrian izango da hilaren 18an, eta Arkaitz Estiballesek bere txartela bilatuko du Ibon Ajuria, Iker Belaustegi, Beñat Gaztelurrutia, Kepa Intxausti eta Unai Iturriagak osatuko duten seikotean.

Hurrengo saioak, Gatican urriaren 25ean, Munitibarren Azaroaren Tean, Santurtzin 8an, Leire Bilbaok, Iñaki Aurrekoetxeak eta Marta Ortizek kantatuz eta azkena Zamudioko parke teknologikoan jokatu da azaroaren 15ean, Iratxe Ibarra bertan dela. Hogeita hamarrotatik hamazortzik aurrera egingo dute finalaurreko saioetan kantatzeko, azaroaren 29an Getxon, abenduaren 6an Zaldibarren eta 13an Bermeon. Eta hiru saioon artean erabakiko da nortzuk egongo diren abenduaren 27ko Arriagako finalean, Bizkai-Arabako txapela janzteko lehian. Saioak arretaz begiratuz gero, aipatzekoa da erdalgunetara bertsolarietza eramateko ahalegin berezia egin dutela antolatzaileek eta Ibar Ezkerrean, Santurtziko saioarekin batera, bertsolarietza

inguruko bederatzik ekitaldi egingo dira, Barakaldo, Sestao eta Portugaleteko euskaltzaleen omenez. Bertso saioak, liburu aurkezpenak eta ekitaldi didaktikoak, denerik egongo da bertsoaren munduan murgildu ahal izateko. Beraz, mahatsorrioi saio asko ez zaizkigu urrun lotuko, eta gura duenak izango du Gabonetara arteko domekak non igaro, Getxo, Amurrio, Zamudio edo Gatika hor eskinan dauzkagun herriak dira-eta. Lehenengo zita urriaren 18an da, eta hortik aurrera bide luzea egingo du Euskal Herriko mendebalde osoan zehar. Bertsoaz gozatu nahi duenak badaki nora joan txapelketaren emozioa dastatzera. Santutxuko eskolako bertsolariak kantatzen dutenean batez ere, ez dezatela animo faltarik izan!

## Santutxuko Bertso Eskolako ordezkariak

### Marta Ortiz



1978an jaioa. Bilbotarra, txapelketara sailkapen saioen bidez heldu da. Sopelan egindako saio bikainari esker. Aurrekoen esperientzia ez badu ere, gogor ibili da uda osoan entrenatzen eta gauza handiak espero ditugu beragandik.

### Arkaitz Estiballes Ormaetxea



1977an jaioa Galdakoztarra, han bizi da gaur ere, Santutxuko bertso eskolan eta auzoan bueltak ematen urte asko badaroz ere. Eskola arteko Bizkaiko txapelduna izanda, eta hainbat sari atera ditu bertso paperetan. Aurreko txapelketan final erdietara heldu ostean, zuzenean sailkatu da aurtengo txapelketarako

### Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa



1969an jaioa, Santutxun jaio eta hazia. Aurreko txapelketan lortu zuen honetarako txartela Iñakik ere. Urte askotan ikusi dugun arren, gaurko gazteen aldean berandu hasitako bertsolaria dugu. Bertso idatzietan trebea dugu Iñaki.



## Hedabideen manipulazioari buruzko mahai ingurua Karmelon

Juanma Idoiagak, Arantza Lezamizek eta David Barberok iritzi publikoa eta hedabideei buruzko hitzaldia eskaini zuten urriaren 6an Karmelo eleizako aretoan. Mahai Inguru honen antolatzailea Santutxu-Boluetako Gizarte Eskola izan zen eta kazaetari bakoitzak iritzi publiko eta manipulazioaren inguruko iritzia plazaratu zuten. David Barberoren ustez hedabideak beharrezkoak dira baina erabiltzen ikasi beha ditugu manipula ez gaitzaten. "Manipulatzeko ahaleginak daude komunikabideetan, beraz, inteligentziaz jokatu behar dugu, irakurtzen ikasi behar dugu". Barberoren esanetan "hedabideak enpresa informatiboak bihurtu dira

eta albistearen balorea bestelako helbuuretarako erabiltzen da, helburu ekonomiko eta politikoetarako hain zuzen". Juanma Idoiagak, bere aldetik, "hedabideek atzetik presio talde bat dute" azpimarratu zuen. Bere ustez "Komunikabideak entzuleria zein iritzi publikoa manipulatzeko sortzen dira". Profesionalen aldetik manipulazioa ekiditeko joera da nagusi, baina profesioaren prekaritatea dela eta, hedabide horrek eskatzen dituen irizpideetan fidelak direnek soilik mantentzen dute kazetari lanpostua. Juanma Idoiagaren ustez "hedabideak ezinbestekoak dira, baina garrantzitsuena hedabide bakoitzaren norabide editorialak norantz dauden

zuzenduta jakitea da. Horrela, errealitatean gertatzen dena jakin dezakegu, editorialaren sintesi bat egin ondoren". Arantza Lezamizek hiru arazo nagusi aipatu zituen manipulazioaren inguruan. Alde batetik, entzuleok gaininformazioa jasotzen du. Bestetik, "entzuten eta ikusten duguna errealitatearen zati bat besterik ez da, eta gainontzekoa ezkutatu egiten da". Hirugarrenez, manipulazio digitalaren aroan gaudela azpimarratu zuen. "Irudiak erraz manipula daitezke eta nahiz eta telebistako irudietan ikusi, teknologia berriekin egindako irudien montajea izan daiteke".

# BIZITZAK BEREAN DIRAU



# Lehiaketa mundiala

Uda joan eta bertón berria etorri, eta udeagaz festak. Ondo pasau badogu, akorduan eukiko doguz, urteetan euki bere. Ezpabere, akordau berez.

Erretratuko festak bere baten batek eukiko dituz akorduan, ha ixilik egon daitela! Besteak, ameneko, nongo festak zirien bere ez dakizue eta. Lagun birentzako afari bet debalde jan gure badozue, ea asertaten ba dozue non ibili zirien harek dantzariak eta harako jendetzea.



**Beraz, pentsaizue, eta afarie debalde gure badozue beko koadroa bete eta bidaldu beheko txartela helbide honetara:**

Berton aldizkaria, Iturriaga 55, 1. ezkerria. 48004 Bilbo

NONGO FESTAK ZIREN?

- Zurbaraneokak, Via Viejako txaleten ondoan egiten ziren.
- Karmelo plazan egiten zen erromeria, Santutxun jakina.
- Begoñako erromeria, Basilikaren aurrean

Izen-abizenak: .....

Helbidea: ..... Telefonoa: .....



Mahatserriko aldizkaria Bertoko berriak, kontuak, iritziak, zeuretzat eta zeurea ere bada

**HARPIDETU!  
KOLABORATU!**

**GABILTZA**  
E. K. M.  
**PRENTSA BANAKETA**

**MASAT TERRENTIKOR**  
L.A. CAMACHO  
411 32 20

**GOIAN S.C.L.**  
**LAN BERTIKALAK**  
Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa  
**ANDAMIO BARIK**

Telefonoa:  
(94) 669 32 79  
Mugikorra:  
908- 45 16 22

# Zure publizitatea

bertón

**3 MODULO**  
6.600

**MODULO 1**  
2.200

**4 MODULO**  
8.800

**2 MODULO**  
4.400

**6 MODULO**  
ORRIALDE ERDIA  
4.400

**ORRIALDE OSOA, KONTRAZALA,  
BESTE MODULAZIO BATZUK, EDO  
INFORMAZIO GEHIAGORAKO**  
94 473 54 48

E J O N D E I Z U L A !

**HOROSKOPOA**

**Aries:** Eutsi zureari. Badakizu arrazoi duzula eta jendea oker dabilela. Gainera, ez al duzu egin zuk lanik gehien?

**Taurus:** Orain bai, heldu da aterkina, gabardina eta katiuskak ateratzeko garaia. Datorren urtera arte praka laburrak ez dituzu beharko.

**Gemini:** Badakigu gogorra dela oporretako buelta, baina negar batean hastea ere...

**Cancer:** Beti berdina gertatzen zaizu, pizgina beteta, ura epel, eta zu, bainujantzi barik.

**Leo:** Zer? Udan galdutakoa errekuperatu behar duzula? Negu gogorra datorrela eta zu hartzen moduan lotara zoazela? Hala ere, txokolate lar ez ote da?

**Virgo:** Zurekin bai, uda joan, udagoiena etorri eta hemen beti udaberria dela pentsa liteke. Ea, ipini loratxu bat ahoan!

**Libra:** Zorionak zuri, zorionak zuri... Behin edo birritan ondo dago, baina jendea aspertu egiten da orduro kanta behar bazaizu.

**Scorpius:** Kontua ez duzu lar ondo hasi, zu alkalinoak zirelakoan, eta pila bi bakarrik erosi zenituen baina lau ere beharko dituzu.


**Sagitaris:** Orain hondartzara? Uda osoan mugitu ezinda orain? Nahi duzuna esan, baina gauza batzuk ez dira normalak.

**Capricornus:** Hotz egiten du, baina ski-ak jantzi arren Artxandan ez dut uste edurrik egingo duenik.

**Aquarius:** Segi zurean, lanean jo eta ke, besteek esanak esan, beti lortzen duzu gura duzuna.

**Piscis:** Amata telebista. Lau ordu irauten badituzu piztu barik, sariren bat emango dizute etxean.

HIEROGLIFIKOA



25ean, nora?

AURREKO HILEKOAREN SOLUZIOA:

PLT

**LETRA ZOPA**

Bizkaiko 12 herriren izenak.

M	A	J	I	I	L	R	A	I	D	E	B	Z
T	U	A	Z	T	O	N	R	O	Z	M	K	D
E	I	S	O	I	R	R	O	L	E	S	A	U
N	L	G	R	R	E	L	N	M	I	L	O	R
B	K	E	N	U	S	G	A	N	S	E	R	A
E	A	U	S	K	U	R	D	S	O	T	R	N
R	L	R	L	E	K	E	I	T	I	O	A	G
M	L	M	P	I	O	E	M	U	T	R	D	O
E	A	N	N	T	E	J	A	K	I	S	N	O
O	Z	A	I	G	K	A	L	E	U	I	O	U
L	R	S	U	D	U	P	E	R	L	L	Z	R
J	O	A	I	G	N	U	M	S	M	N	I	M

**Galdera**

Hau ez da lehiaketa, ez denborapasa, jakin gura baino. Galdera bat botako dugu, ea nork erantzuten digun, geuk eta guztiok ere jakiteko eta erantzuna aldizkarian zabaltzeko. Horra ba galdera:

**Dolaretxe auzoaren izenak zer esan gura du?**

Erantzunak hona:

Berton aldizkaria, Iturriaga 55, 1. 48004 Bilbo

94 473 54 48 tfn. E-posta:berton@mail.com

Hurrengo koplak sorta biak Arratiako Bertso Eskolak aurten antolatu dauen Jentilen koplak paper lehiaketako lehenengo eta bigarren sariak jaso ebezan.

**Lekandapean urduri**

Doinua: "Ostatuko neskatxaren koplak"

Lekandapean urduri  
otsoek hainbet ulubi  
herri bakarria bagara ere  
ikusten dodaz mundu bi.

Mendien kukuek kuku  
ta oilarrak kukurruku  
berba ein behar dogun unean  
zegatik gagoz gu mutu?

Estartan azagarie  
gitxi lez bitxo argie  
batzuentzako guzurre dana  
besteentzako egie.

Mirue dau pikondoan  
ta katue sutondoan  
urrin dauena noz egongo da  
maite dauenan alboan?

Saguek hona ta hara  
hustu deuskue ganbara  
lapur handiek kalean dabiz  
ta txikiek kartzelara.

Hodei artean marmarrak  
urrun joakuz antzarrak  
eurek eroan dagiezala  
gure pena ta negarrak

Bele baltza zozoari  
sari jabilko kantari  
noz arte egon beharko dogu  
tireka hil kanpaiari?

Animalien artean  
bizi gura dot bakean  
inoren menpe egongo ez dan  
aberri aske batean.

Arkaitz Estiballes

